

Nietzscheren animalia kontzeptua

Animali Ikasketen diziplinan

Aitor Erkizia Aranburu

“Filosofia, Zientzia eta Balioak” doktorego programa, Logika eta Zientziaren Filosofiako Saila, Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Donostia.

Sarrera

Zakur bat ikusiko duzu parkeko iturrian egarria asetzen. Umeak izango ditu inguruan ziurrenik, alai, ura edateko zain. Galdegingo diozu zure buruari; ez-giza eta giza animalioek behar baditugu hirian iturriak, zerk bereizten gaitu funtsean? Bai, bereziak dira batzuk eta besteak, haur horiek eta zakurra, baina, zergatik iruditu izan zaigu, gizakioi, balio baten arabera ordenatu behar ditugula? So egin al diogu parkeko zakurrari noizbait begirada ez hierarkizatzaile batez, bene-benetan gutxitzat izan gabe? Halaxe portatzen gara ere gu geu garen animaliarekin, zati onak eta txarrak bereiziz gure soinean, atsedetik gabe edertasunaren, ongiaren ala arrazoiaren bila, mehatxagarri zaizkigun organikotasun, zozokeria edo astakeria gainditu nahirik. Aldiz, gauzak ikusteko modu morala besterik ez da hau.

Helburua



Animali Ikasketen diziplinak XXI. mendeaz gero bizi duen biraketa kontinentalean Nietzscheren animaliatasunak zein funtzio jokatu duen ikertuko da. Honela bertan nagusitzen doazen jarrera post-humanistek gizatasuna ulertzeko duten moduak mendebaldeko tradizio filosofikoari jarraitzen diola kritikatzeko eta Animalien Ikasketen diziplina moralki baldintzatuak ez dauden interpretazio berrietarantz desplazatzeko bilatu nahi da.

Hipotesia

Oraindik ere, Animalien Ikasketek ez-giza nahiz giza animalion etorkizunak geure izaera naturalaren espezifikotasunera lotzen dituzten diskurtsoetan errotuak jarraitzen duten bitartean, jarrera post-humanistek eskatzen duten giza kategorizazio berria, ekologikoagoa eta gainontzeko espezieekiko adeitsuagoa beharko lukeena, paradoxikoki hobekuntza morala bilatzeari uko egingo dioten aberetze-estrategiak jarraitzetik iritsi beharko duela ondorioztatzen da Nietzscheren animaliatasun kontzeptutik.

Zer dira Animalien Ikasketak?

70 hamarkada amaieran Animalien Askapenerako Mugimenduak eta Animalien Etikak espezieen arteko elkarbizitza, berdintasun edo botere-harremenez hausnartzeari ekin ziotenetik hasi zen egituratzen diziplina alternatibo hau, aurrekoekiko kritikoa ideologia mailan nolabait, aldi berean hedatuz zihoazen Ikasketa Kultural post-modernoek bultzatuta. Diziplina anitz honen baitan filosofia garaikidean oinarritzen den literatura espezifiko bat garatu da, *animaliaren arazoa* deiturikoa bir-formulatzearekin mendebaldeko pentsamendu tradizionalaren gainditzea helburu duena. Litekeena bada ere maila ontologikoan animaliak objektu naturalak izatea, Animalien Ikasketek gizakion gizarteetan eta kulturetan zein izaera kategoriko edo sinboliko egokitzen zaizkien aztertzeaz arduratu dira gizaki-animalia harremanak egituratzen dituzten indar, jokabide eta erakundeak ezagutzeak izan dezakeen garrantzia dela eta.



90 hamarkadaz gero erabakigarria izango den biraketa bat gertatzen da nagusiki ipar-amerikarrak diren Animali Ikasketen baitan, erreferentziazko hainbat ikerlarik europar filosofo garaikideen irakurketak barneratzen dituzten heinean. Hauen ustez Nietzsche, Derrida, Lévinas, Deleuze, Agamben, Foucault edo beste hainbat filosofo kontinentalek animalia-aren arazoari eutsi izan diote tradizio metafisikoa biluztu asmoz. Eskuarki, hura deseraikitze saiakerak animalion arteko bizikidetzaren behingoz ez-antropozentriko baten aukera irekitzen dutela diote.

Post-humanismoaren erronka XXI. mendean

Gizakia eta Animalia bezalako kategoria edo mito dominanteengatik galdegiteak zentzua baldin badu, garai ziurgabe bezain aberats honek paradigma sozial, politiko, ekonomiko edo natural berriak sortzeko irekitzen duen abagunearengatik da. Izan ere, kategoriok beti izango dira ardatz gizartearen bizitza kulturala egituratzerakoan. Orain humanismoaren torloju zaharrak laxatzen hasiak diruditela, gure jardura tekno-zientifiko, sozio-diskurtsibo edo artistikoan apurtzaileak izan gabe ezin uler genezake nola marraztu gure etorkizuneko gizatasuna. Baina, tradizioz jaso dugun garapenerako borondateak zein punturaino jarrai lezake ekartzen, berriro ere, benetako paradigma aldaketa bat?

Aplikazioak

- Antropologian edo Natur Zientzietan; abere-oinarri historiko eta naturalaren interpretazio ez-moralek gizatasun berriak eragin ditzakete.
- Ekologian; ustiapen eredu tradizionalak baino ingurumen-eragin urriagoa sor dezakete bizitzaren ulermen ez-moralean oinarriturikoek.
- Politikan; liberalismoaren eta sozialismoaren arteko borroka ideologikoan inplikatuak ez dauden planteamendu anti-humanistak ahalbidetzea.

Kontaktua:

erkrissia@gmail.com